– Agizkoak ez diren lan espezifiko eta zehatzak egiteko kontratuak pertsona fisikoekin.

– Administrazio kontratu bereziak, ondareei buruzkoak eta arriskuen ondorioak ordaintzeari buruzkoak izan ezik.

– Legeetan erregimen berezirik ez duten kontratu bitxi edo izengabekoak.

– Kontratazioetarako Erregimen Organikoari buruzko arauetan, Kontratazio Batzorde Nagusiari izenda dakiokeen beste edozein eskuduntza.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko uztailak 18.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

– Contratos con personas físicas para la realización de trabajos específicos y concretos no habituales.

– Los contratos administrativos especiales, a excepción de los patrimoniales y de cobertura de riesgos.

– Los contratos atípicos o inominados que carezcan en el ordenamiento jurídico de régimen específico.

– Cualquier otro que la normativa sobre Régimen Orgánico de la Contratación atribuya a la Comisión Central de Contratación.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de julio de 1995.

El Vicepresidente del Gobierno,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## KULTURA SAILA

### 2966

370/1995 DEKRETUA,uztailaren 11koa, arrazakeria, xenofobia, antisemitismoa eta intolerantziaren aurkako Gazteriaren Europako Kanpainaren Euskal Batzordea osatzeko eta horren osakera eta funtzionamendua arautzeko dena.

Europako Kontseiluko estatu eta gobernu buruen goi bileran, Vienan burutu zena 1993ko urrian, Europako Kontseiluaren Ekintzarako Plan Orokorra egitea erabaki zen elkarbizitza demokratikoa sendotzeko alde batetik eta intolerantzia eta diskriminazioari aurka egiteko bestetik.

Asmo horren barruan kokatzen da arrazakeriaren, xenofobiaren, antisemitismoaren eta intolerantziaren aurkako Gazteriaren Europako Kanpaina, 1995. urtean zehar burutuko dena. Kanpaina horrek aurrera egin dezan beharrezkoa da estatu, autonomi eta herri mailako batzordeak sortzea.

Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 10.39. atalak Euskal Autonomi Elkarteari eskumen esklusiboa ematen dio gizarte garapenari, emakumezkoen babesari eta haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politikari dagokionean.

1981eko martxoaren 23ko Dekretuaren bidez Transferentzietako Batzorde Mistoaren erabakia onartu zen Estatuak zenbait esparrutan, Gazterian eta Suspertze Soziokulturalean, besteak beste, zerbitzuak Euskal Autonomia Elkartearen esku utz zitzan irailaren 26ko 3069/1980 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

### 2966

DECRETO 370/1995, de 11 de julio, por el que se crea el Comité Vasco de la Campaña Europea de la Juventud contra el racismo, la xenofobia, el antisemitismo y la intolerancia y se regula su composición y funcionamiento.

La cumbre de Jefes de Estado y de Gobierno del Consejo de Europa, que se celebró en Viena en octubre de 1993, acordó la elaboración de un Plan de Acción General del Consejo de Europa destinado a reforzar la coexistencia democrática, y a prevenir y combatir la intolerancia y la discriminación.

Dentro de este Plan se encuadra la Campaña Europea de la Juventud contra el racismo, la xenofobia, el antisemitismo y la intolerancia que se desarrollará durante el año 1995 y para la que se prevé la constitución de diversos Comités a nivel estatal, local y autonómico.

El artículo 10.39 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco atribuye competencia exclusiva a la Comunidad Autónoma en materia de Desarrollo Comunitario, Condición Femenina, Política Infantil y Juvenil y de la Tercera Edad.

Mediante el Decreto de 23 de marzo de 1981, se aprobó el acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias en los términos establecidos por el Real Decreto 3069/1980, de 26 de septiembre, sobre traspaso de servicios del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia, entre otras, de Juventud y Promoción Sociocultural.

Gazteriaren alorrari dagozkion eskumenak Kultura Sailarenak dira, hala jasota ageri da urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuan, Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituena hain zuzen.

Eusko Jaurlaritza Kanpaina horrek duen garrantziaz jabetzen da, bere egiten ditu bertan azaltzen diren helburuak eta helburu horiek Euskal Autonomi Elkartean lor daitezen saiatzen da. Horregatik, eta horren alde lan egin nahian, Euskal Batzordea osatzea ezinbestekoa dela uste du. Batzorde hori izango litzateke kanpainaren eragile Euskal Autonomi Elkartean, jendeari, gazte jendeari batipat, arazo horretan pentsarazteko eta aktiboki parte har dezan animatzeko. Batzordea, bere osaera eta izaera dela eta, bide aproposa izango da arrazarengatik edo ideologiarengatik diskriminaziorik egiten bada horren aurka egiteko eta hartu beharreko neurriei buruz aholkua emateko nahiz neurri horiek har daitezela laguntzeko modua eskaintzeko.

Hori horrela, Kultura sailburuak proposatuta eta 1995eko uztailaren 11an Jaurlaritzaren Kontseiluak egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT :

*1. atala.–* Dekretu honen helburua da arrazakeriaren, xenofobiaren, antisemitismoaren eta intolerantziaren aurkako Gazteriaren Europako Kanpainako Euskal Batzordea sortzea eta horren funtzionamendua arautzea. Batzorde horrek aholku eta laguntza emango dio Eusko Jaurlaritzari Europako Kanpaina horri dagozkion gaietan.

*2. atala.–* Arrazakeriaren, xenofobiaren, antisemitismoaren eta intolerantziaren aurkako Gazteriaren Europako Kanpainaren Euskal Batzordea Kultura Sailari atxikiko zaio eta Dekretu honetan ezarritako izaera, osaera, eskumenak, eta funtzionamendu arauak izango ditu.

*3. atala.–* Honako hau izango da arrazakeriaren, xenofobiaren, antisemitismoaren eta intolerantziaren aurkako Gazteriaren Europako Kanpainaren Euskal Batzordearen osaera:

3.1.– Ohorezko lehendakaria.

Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izango da batzordearen ohorezko lehendakaria, bera izango da ordezkari nagusia.

3.2.– Lehendakaria.

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua izango da lehendakaria, bera izango da ordezkari ohizkoa.

3.3.– Lehendakariordea.

a) Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordea, bera izango da lehen lehendakariordea.

b) Euskadiko Gazteria Kontseiluko burua, bera izango da bigarren lehendakariordea

La esfera de atribuciones relativa al ámbito de la juventud se encuentra afecta al Departamento de Cultura, en virtud del Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

El Gobierno Vasco, consciente de la importancia de la problemática abordada en dicha Campaña europea, haciendo suyos los fines que en la misma se persiguen y tratando de favorecer e impulsar su difusión y arraigo dentro del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi, estima necesario la creación de un Comité Vasco para que, asumiendo el liderazgo de la campaña en nuestra comunidad, movilice a la opinión pública y sensibilice a todos los ciudadanos y especialmente al sector juvenil fomentando así su participación activa en la presente campaña. Dicho Comité por su propia composición y carácter se presenta como un cauce idóneo de participación y coordinación para asesorar, estimular y posibilitar la adopción de cuantas medidas fuesen pertinentes en la prevención y lucha contra cualquier forma de discriminación racial o ideológica.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 11 de julio de 1995,

DISPONGO:

*Artículo. 1.–* Es objeto del presente Decreto la creación y regulación del Comité Vasco para la Campaña Europea de la Juventud contra el racismo, la xenofobia, el antisemitismo y la intolerancia, como un órgano consultivo y de asistencia al Gobierno Vasco en el ámbito de dicha campaña europea.

*Artículo 2.–* El Comité Vasco para la Campaña Europea de la Juventud contra el racismo, la xenofobia, el antisemitismo y la intolerancia queda adscrito al Departamento de Cultura y constituido con el carácter, competencias, composición y régimen de funcionamiento que se establecen en el presente Decreto.

*Artículo 3.–* La composición del Comité Vasco para la Campaña Europea de la Juventud contra el racismo, la xenofobia, el antisemitismo y la intolerancia será la siguiente:

3.1.– Presidencia de Honor.

La presidencia de honor del Comité será ostentada por el Lehendakari del Gobierno Vasco, quien asumirá la máxima representación del mismo.

3.2.– Presidencia.

Será presidenta del Comité la Consejera de Cultura del Gobierno Vasco, quien asumirá su representación ordinaria.

3.3.– Vicepresidencia.

a) El Viceconsejero de Cultura del Gobierno Vasco, que actuará como Vicepresidente primero.

b) El Presidente del Consejo de Juventud de Euskadi, que actuará como Vicepresidente segundo.

3.4.– Bokalak.

a) Eusko Jaurlaritzako Gazteri eta Gizarte Ekintzarako zuzendaria.

b) Diasporarekiko Harremanetarako eta Garapenerako Kooperaziorako zuzendaria.

c) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Pedagogi Berrikuntzako zuzendaria.

d) Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Giza Eskubidetarako zuzendaria.

e) Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gizarte Ongizateko zuzendaria.

f) Emakundeko zuzendaria

g) Hiru lurralde historikoetako Foru Aldundietako Gazteri zuzendariak.

h) Hiru euskal hiriburuetako Gazteri zinegotziak.

i) EUDELeko ordezkari bat.

j) Euskadiko Gazteria Kontseiluko hiru ordezkari.

k) Euskal Autonomi Elkartean kokatuta dauden eta arrazismoaren aurka lan egiten duten elkarte nahiz gobernukoak ez diren erakundeetako ordezkariak, etorkinen elkarteetako ordezkariak, gutxiengo etnikoen elkarteetako ordezkariak eta gazte elkarteetako ordezkariak. Gehienez ere 30 izango dira, Kultura sailburuak gonbidatuta.

l) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Gazteri eta Gizarte Ekintzarako teknikari bat, idazkari lana egingo duena.

*4. atala.*– Honako eginkizun hauek izango ditu arrazakeriaren, xenofobiaren, antisemitismoaren eta intolerantziaren aurkako Gazteriaren Europako Kanpainaren Euskal Batzordeak:

4.1.– Kanpainaren erantzukizuna bere gain hartu Euskal Autonomi Elkartean, Europa osorako emandako arauak errespetatuz.

4.2.– Ekintzak bultzatzea, elkarte osoan nahiz tokian tokian burutzekoak.

4.3.– Vienako goi bileran erabakitakoa betetzen dela bermatzea eta hori ziurtatzeko egin beharrekoak egitea.

4.4.– Elkarte mailan eta herri mailan egiten diren ekintzak koordinatzea eta herriak, Autonomi Elkartea eta Estatua harremanetan daudela ziurtatzea.

4.5.– Ikastetxeen, komunikabideen, gobernukoak ez diren erakundeen eta abarren partaidetza bultzatzea eta eragitea.

4.6.– Kanpaina bestelako ekintzekin bateratzea, esate baterako Nazio Batuen Tolerantziaren Urtearekin eta Gazteriaren Urtearen urtemugarekin.

*5. atala.*– Dekretu honek arrazakeriaren, xenofobiaren, antisemitismoaren eta intolerantziaren aurkako Gazteriaren Europako Kanpainako Euskal Batzordeari

3.4.– Vocales.

a) El Director de Juventud y Acción Comunitaria del Gobierno Vasco.

b) El Director para las Relaciones con la Diáspora y la Cooperación al desarrollo del Gobierno Vasco.

c) La Directora de Renovación Pedagógica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.

d) La Directora de Derechos Humanos del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

e) El Director de Bienestar Social del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

f) La Directora de Emakunde.

g) Los Directores de Juventud de las Diputaciones Forales de los tres Territorios Históricos.

h) Los Concejales de Juventud de los tres Ayuntamientos de las tres capitales vascas.

i) Un representante de EUDEL.

j) Tres representantes del Consejo de la Juventud de Euskadi.

k) Hasta un máximo de 30 representantes de Asociaciones y organizaciones no gubernamentales especializadas en la lucha contra el racismo, de inmigrantes, minorías étnicas, solidaridad y Asociaciones juveniles, radicadas en la Comunidad Autónoma Vasca por invitación de la Consejera de Cultura.

l) Un técnico de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco que actuará como Secretario.

*Artículo. 4.*– El Comité Vasco para la Campaña Europea de la Juventud contra el racismo, la xenofobia, el antisemitismo y la intolerancia tendrá las siguientes funciones:

4.1.– Asumir la responsabilidad de la Campaña en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi siguiendo las pautas establecidas a nivel europeo.

4.2.– Promover acciones a nivel autonómico y local.

4.3.– Asegurar la aplicación de la Declaración de la Cumbre de Viena y efectuar el correspondiente seguimiento.

4.4.– Coordinar las actuaciones autonómicas y locales y asegurar la articulación entre los niveles local, autonómico y estatal de la campaña.

4.5.– Estimular la participación y el compromiso de centros educativos, medios de comunicación, organizaciones no gubernamentales, etc.

4.6.– Vincular la Campaña a otras iniciativas como el Año de la Tolerancia de Naciones Unidas y el aniversario del Año Internacional de la Juventud.

*Artículo 5.*– Para el ejercicio de las funciones atribuidas por el presente Decreto al Comité Vasco para la Campaña Europea de la Juventud contra el racismo, la

ematen dizkion zereginak bete ahal izateko, lantalde iraunkor bat izendatu ahal izango du bere baitan hala erabakitzen baldin badu. Lantalde iraunkor horrek Euskal Batzordeak erabaki eta eztabaidatu beharreko lan eta txostenak prestatuko ditu.

5.1.– Lantalde iraunkorraren burua Eusko Jaurlaritzako Gazteri eta Gizarte Ekintzako zuzendaria izango da eta 10 bokal izango ditu Euskal Batzordea osatzen duten kideen artetik aukeratuak. Hori ondoko proportzioaren arabera egingo da:

a) Eusko Jaurlaritzako Sailen ordezkari gisa, bat.

b) Foru Aldundietako ordezkari gisa, bat.
c) EUDELen ordezkari gisa, bat.
d) Hiru lurralde historikoetako hiriburuetako Udalen ordezkari gisa, bat.
e) Euskadiko Gazteri Kontseiluaren ordezkari gisa, hiru.
f) Arrazismoaren aurka lan egiten duten elkarte nahiz gobernukoak ez diren erakundeetako ordezkari, etorkinen elkarteetako ordezkari, gutxiengo etnikoen elkarteetako ordezkari eta gazte elkarteetako ordezkari gisa, hiru.

5.2.– Bokal horiek Kultura sailburuaren agindu bidez izendatuko dira ordezkatzen duten entitateek beren izena proposatu ondoren.

5.3.– Idazkaria Bazordeko idazkaria bera izango da eta hitzegiterik izango badu ere ez du boto emateko eskubiderik izango.

*6. atala.–* Euskal Batzordea lau aldiz bilduko da gutxienez kanpainak dirauen artean, eta bere eginkizunak betetzeko gehiagotan biltzea behar bada, gehiagotan ere bilduko da. Bilerarako deia batzordeko lehendakariak egingo du, berak hala nahi duelako edo bokalek nahiz lantalde iraunkorreko kideen heren batek proposatzen diolako.

*7. atala.–* Arrazakeriaren, xenofobiaren, antisemitismoaren eta intolerantziaren aurkako Gazteriaren Europako Kanpainako Euskal Batzordea 1996an desegingo da, Kanpainari buruzko txostena egin ondoren.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

*Lehena.–* Dekretu honetan ezarritako xehetasunak xehetasun, Euskal Batzordearen funtzionamendua azaroaren 26ko Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazioko Ihardunbideari buruzko 30/1992 Legearen arauetan ezarritakoari egokituko zaio.

*Bigarrena.–* Arrazakeriaren, xenofobiaren, antisemitismoaren eta intolerantziaren aurkako Gazteriaren Europako Kanpainarako Euskal Batzordea bi hilabeteko epean eratu beharko da, Dekretu hau indarrean jartzen den egunetik kontatzen hasita.

*Hirugarrena.–* Dekretu honetan ezarritakoa hedatzeko behar beste xedapen emateko ahalmena ematen zaio Kultura sailburuari.

xenofobia, el antisemitismo y la intolerancia podrá éste, por acuerdo del mismo, establecer en su seno una Comisión Permanente que preparará y elaborará cuantos trabajos, dictámenes e informes hayan de ser acordados y deliberados por el Comité.

5.1.– La Comisión Permanente, que estará presidida por el Director de Juventud y Acción Comunitaria del Gobierno Vasco, se constituirá por 10 vocales de entre los que conforman el Comité, con arreglo a la siguiente proporción:

a) Uno en representación de los Departamentos del Gobierno Vasco.
b) Uno en representación de las Diputaciones Forales
c) Uno en representación de EUDEL
d) Uno en representación de los Ayuntamientos de las capitales de los tres Territorios Históricos.
e) Tres en representación del Consejo de la Juventud de Euskadi
f) Tres en representación de las asociaciones y organizaciones no gubernamentales especializadas en la lucha contra el racismo, de inmigrantes, de minorías étnicas y de solidaridad.

5.2.– Tales vocales serán nombrados por Orden de la Consejera de Cultura a propuesta de las entidades en cuya representación intervengan.

5.3.– Actuará como secretario, con voz pero sin voto, el Secretario del Comité.

*Artículo 6.–* El Comité se reunirá con carácter ordinario al menos cuatro veces durante el desarrollo de la Campaña, y cuantas veces sea necesario para el buen cumplimiento de sus funciones. La convocatoria partirá de la Presidenta a iniciativa propia o a propuesta de una tercera parte de los vocales del Comité o de los miembros de la Comisión de Seguimiento.

*Artículo 7.–* El Comité Vasco para la Campaña Europea de la Juventud contra el racismo, la xenofobia, el antisemitismo y la intolerancia se disolverá en 1996, una vez elaborada la correspondiente Memoria de evaluación de la Campaña.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* Sin perjuicio de las peculiaridades previstas en el presente Decreto, el funcionamiento del Comité se acomodará a las normas contenidas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común sobre órganos colegiados.

*Segunda.–* El Comité Vasco para la Campaña Europea de la Juventud contra el racismo, la xenofobia, el antisemitismo y la intolerancia deberá constituirse en un plazo no superior a dos meses, a contar desde la entrada en vigor del presente Decreto.

*Tercera.–* Se faculta a la Consejera de Cultura para dictar cuantas disposiciones requieran el desarrollo del presente Decreto.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoko egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko uztailak 11.

Jaurlartzaren lehendakariordea,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
M.ª KARMEN GARMENDIA LASA.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### OSASUN SAILA
### *(Osakidetza)*

**2967**

789/1995 ERABAKIA, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, Carlos Ruiz de Vergara Laorden jauna, Arabako Osasun Barrutiko Lezako ospitaleko zuzendari kudeatzaile izendatzeko dena.

Arabako Osasun Barrutiko Lezako ospitaleko zuzendari kudeatzailearen lanpostua aukerako izendapenaz betetzeko deialdia egin zuen zuzendaritza nagusi honek martxoaren 22ko 374/1995 Erabakiaz. Erabaki hori 1995eko apirilaren 24ko EHAAn (77 zk.) argitaratu zen.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu denez, lanpostua betetzeko aurkeztu den lehiatzaile bakarrak ekarritako agiriak aztertu egin dira eta dituen baldintza profesionalak curriculum vitae-an jarritako merituen arabera baloratu dira.

Aurkeztutako agiriak kontutan hartuta, Carlos Ruiz de Vergara Laorden jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta lanpostuan iharduteko kualifikazio ona duela uste da.

Hori dela eta, zuzendaritza nagusi honek hau

ERABAKI DU:

*Lehenengoa.*– Carlos Ruiz de Vergara Laorden jauna, Arabako Osasun Barrutiko Lezako ospitaleko zuzendari kudeatzaile izendatzea.

*Bigarrena.*– Izendapen honek jabetze-egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Lanpostuaz jabetzeko epea, gehienez ere, hamar egunekoa izango da, erabaki hau jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de julio de 1995.

El Vicepresidente del Gobierno,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
M.ª KARMEN GARMENDIA LASA.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD
### *(Servicio Vasco de Salud)*

**2967**

RESOLUCION 789/1995, del Director General del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, por la que se nombra a D. Carlos Ruiz de Vergara Laorden para desempeñar el puesto de Director Gerente del Hospital de Leza, Area Sanitaria de Alava.

Vista la convocatoria para cubrir, por el sistema de libre designación, el puesto de Director Gerente del Hospital de Leza, Area Sanitaria de Alava, publicada en el B.O.P.V. n.º 77, de 24 de abril de 1995, mediante Resolución n.º 374/1995, de 22 de marzo, de esta Dirección General.

Resultando que finalizado el plazo de presentación de solicitudes, ha sido estudiada la documentación presentada por el único aspirante al desempeño del puesto de que se trata, habiéndose valorado sus condiciones profesionales conforme a los méritos aportados en el «Curriculum Vitae».

Considerando que a la vista de la documentación presentada, D. Carlos Ruiz de Vergara Laorden se adecúa al perfil del puesto convocado y posee la cualificación idónea para el desempeño del mismo.

En virtud de cuanto antecede, esta Dirección General,

RESUELVE:

*Primero.*– Nombrar a D. Carlos Ruiz de Vergara Laorden Director Gerente del Hospital de Leza, Area Sanitaria de Araba.

*Segundo.*– El presente nombramiento surtirá plenos efectos desde su toma de posesión, que habrá de realizarse en un plazo máximo de diez días naturales a partir de la notificación de la presente Resolución.